

CAF-EK AKORDIOA ADOSTU DU AUTOBUSAK FABRIKATZEN DITUEN POLONIAKO SOLARIS ENPRESA EROSTEKO ETA, HALA, HIRIKO MUGIKORTASUNAREN ALDE EGINDAKO APUSTUA SENDOTU DU

CAFek bere Plan Estrategikoaren baitan, hiriko mugikortasun jasangarriko sistemetan Europa mailako lidergoa lortzeko ekindako bidean, aurrerapauso handia ematea erabaki du. Solaris gehituta, dagoeneko zabala den produktuen gama handitu du eta, horri esker, hiriko gaur egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuna eman ahal izango die honako alderdi hauetan garrantzi berezia jarrita: mugikortasun elektrikoa eta atez ateko garraio multimodaleko zerbitzuak. Poloniako Solaris enpresa gehituta, CAF Taldea autobusen segmentuan merkatuko gaur egungo liderretako bat bihurtuko da.

“CAFek Solarisen egin duen inbertsioak baieztatu egin du modu errentagarrian hazteko helburuarekiko gure konpromisoa, eta merkatu estrategiko berriak ireki dizkigu”, adierazi du Andres Arizkorretak, CAFeko presidentea eta kontseilari delegatua. “Solarisekin batera, tren arloaz harago joanda, hiriko mugikortasuneko irtenbideetan liderra sortuko dugu eta, bereziki, e-mugikortasunaren arloan. Solaris marka baliotsua garatu eta aurrera eraman nahi dugu eta, era berean, haren izaera poloniarrari eutsi nahi diogu. Bi enpresen fabrikazio, diseinu, teknologia eta zerbitzuen arloetako know-howa bateratuta eta Solarisek produktuen berrikuntzan duen ibilbideari esker, gure bezeroei erantzun hobea eskainiko diegu eta horrek, aldi berean, gure akziodunentzat balioa sortuko du”.

“Solarisek inbertsiogile izan dadin CAF hautatuta, gure markarentzat, bezeroentzat eta langileentzat etorkizun handia berma dezakegu”, adierazi du Solange Olszewska-k, Solaris Bus & Coach-eko presidentea eta kontseilari delegatua. “Uste osoa dut CAFek Solarisen inguruko ikuspegi egokia duela eta mundu mailan bere potentzial osoa garatzen lagunduko duela. Ziur nago akordio hau enpresa duela 22 urte eratu genuenetik lortu dugun guztiarekin erabat bat datorrela eta horrek Solaris garapen maila gorakorretan kokatuko duela”, gehitu du Olszewska andreak.

Solaris, 1996an eratutako enpresa, 32 herrialdeetako 700 hiri baino gehiagotan presentzia duen autobus arrunt eta elektrikoen mundu mailako hornitzailea da. 2017 urteko fakturazioa 450 milioi euro ingurukoa izan da eta Polonian bi produkzio-lantegi (Bolechowo eta Sroda hirietan) eta 2.300 langile baino gehiago ditu.

Gaur egun, honako hauek dira Solarisen merkatu nagusiak: Polonia, Alemania, Italia, Eskandinavia eta herrialde baltikoak (32 herrialdeetan du presentzia enpresak). Zehazki esanda, 2017ko ekitaldian, 1.397 ibilgailu hornitu zituen: autobus arruntak (diesela eta GNC) zein e-mobility gamako gero eta ibilgailuen kopuru handiagoa. Gainera, azken horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da merkatu osoko irtenbideen gama zabalena duela (hibridoak,

trolebusak, bateria, hidrogenoa). Era berean, enpresak lotutako beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu: ordezko piezen hornikuntza eta mantentze-lanak, esate baterako.

2017an, Solarisen Urbino autobus elektrikoak eskuratu zuen "Urteko Autobusa" aipamen entzutetsua.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da CAF Taldea Europan hiriko segmentuko lider bat bihurtuko duela eragiketa horrek. Gainera, Erdialdeko eta Ekialdeko Europan tren-ibilgailuen hiriko negozioarako aukera berriak ekarriko dizkio. Bestalde, zerbitzuen negozioa, trakzio-ekipo elektrikoena eta garraio-sistemen diseinua bultzatuko ditu, eta mugikortasunarekin lotutako jarduera berriak irekitzeko eta hazteko aukera eskainiko du.

Zehatzago esanda, autobusen segmentuan, eta azken urteotan Vectia filialak hiriko garraio-irtenbide hibridoekin eta elektrikoekin lotuta egindako lanaren osagarri moduan, Solarisekin adostutako akordio horrek hazten ari den merkatuan produktuen gama osoa eta zabalena eskaintzeko aukera emango du eta, bereziki, e-mobility izeneko esparruan.

CAFen erabakia 2017-2020 Plan Estrategikoarekin bat dator eta bezeroen talde zabalagoari garraio arloko irtenbide integralak eskaintzeko gaitasun teknologiko handiagoa emango dio gainera.

Azken horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Solarisen eta CAF Taldearen negozioak osagarriak direla. Mundu osoan bezero kopuru handia dute eta horrek guztiak sinergia handiak lortzen lagunduko die alde batetik, bezeroei eskaintza osoagoa eskaintzeari dagokionez, eta bestetik, lizitazioei eta garapen teknologikoei (I+G) aurre egiteko garaiari finantza eta teknologia arloko gaitasun handiagoa izateari eta erosketa-jardueren osagarritasunari eta kontzentrazioari dagokienez.

Konpainiaren balioa 300 milioi euro baino gehiagokoa da, eragiketa ixten den azkeneko balioa duten egokitzapenen ondoren. Negozioaren balioarekin, 2018rako aurreikusitako emaitzen arabera, Solaris PER-k 2017ko amaieran CAFek zuen ratioaren azpian izango da.

Solaris-en akzio guztiak eskuratzeko aurreikusitako eragiketa CAFen zor gehigarriaren bidez finantzatuko da. Gainera, bere azken materializaziorako 2018ko irailean aurreikusten diren Poloniako eta Alemaniako lehia arloko agintaritzen onarpena jaso beharko du, 2018ko irailerako aurreikusita dagoelarik.

Eragiketarekin erlazionatutako informazio gehigarria azpian aurkitzen da.



Hiri-mugikortasunerako irtenbide
jasangarriak handitzea

CAF

2018ko uztailak 3

CAFek “Solaris”, autobusen Poloniako fabrikatzailea, sartuko du bere taldean

Europa mailako lidergoa hiriko mugikortasun jasangarriko sistemetan

CAF | GROUP



Mugikortasun elektrikoko produktuen gama zabaltzea

1. Solaris



32 herrialdetako 700 hiri baino gehiagotan presentzia duen hiriko autobus hibridoak, elektrikoak eta arruntak hornitzen enpresa liderra



Informazio orokorra	Zenbaki batzuk (2017)	Teknologia / Produktua	Merkatua / Bezeroak
<ul style="list-style-type: none"> • Solaris Bus & Coach SA • 1996an sortutako enpresa • Produkzio-lantegiak Polonian 	<ul style="list-style-type: none"> • 1.397 autobus • 2.319 langile • 444 M€-ko salmentak 	<ul style="list-style-type: none"> • Irtenbideen gama osoa: arrunta, hibridoa eta elektrikoak • Hiriko segmentuan espezializazioa • Europa mailan aitzindaria e-mobility irtenbideetan • Kargako askotariko irtenbideak 	<ul style="list-style-type: none"> • Esperientzia 700 bezero ingururekin • > unitateen % 60 nazioarteko bezeroei salduta • Merkatu nagusiak: Alemania eta Polonia

1. Solaris



Solarisek merkatu osoko e-mobility irtenbideen gama zabalena eskaintzen du

Arrunta

E-mobility

Zerbitzuak

DIESELA ETA GNC			E-MOBILITY PRODUKTUAK			KARGAKO TEKNOLOGIAK			SALMENTA OSTEKO ZERBITZUAK
Urbino (Diesela)		Hiriko diesel-autobusa <i>Askotariko luzerak</i>	Urbino Electric		Zero igorpeneko hiriko autobusa <i>Askotariko luzerak</i>	Entxufagarria		Nureberg Paris Varsovia	Mantentzea
InterUrbino		Hiriarteko diesel-autobusa <i>Askotariko luzerak</i>	Urbino Hybrid		Hiriko autobus hibridoa <i>Askotariko luzerak</i>	Indukzioa		Brunswick Berlin Braunschweig	
Urbino CNG		CNG hiriko autobusa <i>Askotariko luzerak</i>	Trollino 2001		Zero igorpeneko trolebusa <i>Askotariko luzerak</i>	Pantagrafoa		Rzeszów Oslo Hannover	
						Erregai-pila		Hanburgo Riga Bergamo	Ordezko piezak

- Gama kontsolidatuta, 14.000 erreferentzia baino gehiagorekin

- Lehen autobus elektrikoa 2011n merkaturatu zuten
- Gutxi gorabehera, 2.000 unitate salduta


- e-mobility gama irtenbide posible guztiekin (hibridoak, trolebusak, bateria eta erregai-pila), lehiakideekiko oso gaisetik

- Potentzial handia, e-mobility-ari lotutako zerbitzuek eskari handiagoa izateko dagoen aurreikuspena dela eta

1. Solaris

Posizionamendu bikaina hazten ari den merkatuaren aukerak aprobetxatzeko

Autobus elektrikoek Europako eskaria



Autobus kopurua. Gutxi gorabeherako kopuruak
 Iturria: Solaris Bus & Coach SA, The World Bus & Coach Manufacturing Industry Report 2016, VDA Bus Report 2017

Europa mailako e-mobility segmentuan posizionamendua

SEGMENTU KUOTA			E-MOBILITY ESKAINTZA			
ENPRESA			Hibridoa	Trolebusa	Bateria	Erregai-pila
SOLARIS	#1 (>% 65)	#3 (>% 10)	●	●	●	●
Peer 1	#2 (>% 15)	#1 (% 20)	●	○	◐	○
Peer 2	#4	#2 (>% 10)	●	○	○	○
Peer 3	n.d.	#4 (>% 10)	●	●	●	○
Peer 4	#3	#5 (<% 10)	●	○	○	○
Peer 5	n.d.	#6 (<% 10)	●	○	●	○

Fuente: Solaris Bus & Coach S.A.

Solarisen produktuen mixak pixkanakako aldaketa egingo du e-mobility irtenbideek garrantzi handiagoa izatera bideratuta

	Arrunta	E-mobility
2017	Unitateen % 80	Unitateen % 20
2020E	Unitateen % 55 gutxi gorabehera	Unitateen % 45 gutxi gorabehera

2. Posizionamendu estrategikoa

Akzioen egitura berriak CAFen epe luzerako proiektua babesten du. Nazioartekotze-prozesuaren hasiera

Treneko teknologia kritikoen garapena. CAF Power&Automation, CAF Signalling eta CAF Turnkey&Engineering sortu ziren. Irtenbideak merkaturatzen hasi ziren


2013: **Vectia** eratu zen. Autobus hibrido eta elektrikoaren hiriko sistemak hornitzeaz arduratzen da



Nazioarteko kontsolidazioa. Ibilgailuak diseinatzeko **know-how**aren kontsolidazioa

CAF Taldearen PE2017-2020ren aurkezpena. Bere negozio guztietan **hazkunde errentagarritasuna** lortzea du xede

<p>1</p> <p>Hazkunde handiagoa ibilgailuetan</p>	<p>2</p> <p>Zerbitzu-negozioa sendotzea</p>	<p>3</p> <p>Beste negozio batzuen hazkundea</p>
---	--	--



Lehen **trolebusaren** aurkezpena (lehen urratsa mugikortasun elektrikoan)

Autobus **hibrido**en serieko produkzioko Europako lehen linearen aurkezpena

Lehen autobus **elektriko**aren aurkezpena

Produkzioaren hasiera Neoplan lizentziarekin Bolechowo-n (Polonia)

Gas natural konprimatuzko ("CNG") lehen autobusaren aurkezpena

2. Posizionamendu estrategikoa

Solarisek hazkunde-aukerak sortzen ditu CAFen negozio nagusietan (core), eta gehiago haziko da CAF Taldeko kide izanda

CAF Taldearen 2020ko

Plan Estrategikoa

1

Hazkunde handiagoa ibilgailuetan



- Solarisek Erdialdeko eta Ekialdeko Europako hiri-segmentuan duen lidergoak aukera berriak eskainiko dizkio Ibilgailuen negozioari
- Cross-selling aukera: Solarisen produktuen eskaintza CAFek gaur egun duen bezeroen baseari, eta CAFen hiri-produktuena (tranbiak eta LRVak) Solarisen bezeroen baseari.

2

Zerbitzu-negozioa sendotzea



- Aukera handiagoa zerbitzuen negozioa zabaltzeko (mantentzea ta ordezeko piezak) hauei esker:
 - E-mobility produktuei lotutako zerbitzuen eskaria handitzearekin lotutako aurreikuspena
 - Laguntza CAFen Rail Servicesen negozioaren know-howan

3

Beste negozio batzuen hazkundera



- Bultzada hiriko autobusen negozioaren hazkunderari CAF Taldearen bidez hauei esker:
 - CAF Turnkey&Engineering-ren giltza eskurako proiektuen eta kargako azpiegiturako irtenbideen teknologia eta diseinu arloetako gaitasuna eta CAF Power&Automation-en trakzio-kateko eta energia-pilaketako teknologia
 - CAFen know-how a finantzaketa-jardueretan
- Hazkunde gehigarriko aukera **propulsio-sistemen eta kargako irtenbideen** negozioan

CAF
TALDEAREN
IKUSPEGIA¹

“Gure garraio-eskaintza integrala tren arloaz harago ugaritzea eta dibertsifikatzea”

Aurrezki potentzialak


- ✓ I+G
- ✓ Erosketak
- ✓ CRC²



2. Posizionamendu estrategikoa

Solarisek CAF Taldeari salmenta kopuru nabarmena gehituko dio

CAF Taldearen + Solarisen salmentak (M €)



Iturria: CAFen urteko kontu bateratuak eta Solaris Bus & Coach S.A.ren urteko kontuak. eurotan bihurtutako 2018ko urtarilaren 2ko truke-tasaren arabera (EUR / PLN = 4.1633)

3. Eragiketaren xehetasunak

- Solaris Bus & Coach Saren % 100en erosketa
- Enpresaren balioa 300 milioi euro baino gehiagokoa da
- 2018rako aurreikusitako emaitzen arabera, SOLARISen PER-a 2017ko amaieran CAFek zuen ratioaren azpitik izango da
- CAFen zor gehigarriarekin finantzatuko da eragiketa
- Hurrengo urratsak:
 - Poloniako eta Alemaniako Lehia arloko Agintaritzek eragiketa onartzea
 - Eragiketa ixtea 2018ko irailerako dago aurreikusita

Dokumentu hau berariaz informazioa emateko sortu da.

Dokumentuak bukatu gabeko eskuratzeko osatzea operazioari buruz jakinarazten du. Aipatutako operazioa organismo egokiek konpetentzia kontuetan aurreko baimenaren mendean jarrita dago. Dokumentu honetan jasotako informazioa ez dute egiaztatu hirugarren independenteek; beraz, ez dago berariaz edo inplizituki inolako bermerik bertan jasotako informazio, iritzi edo adierazpenen inpartzialtasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren edo zuzentasunaren inguruan.

Dokumentu honetan, gerora begirako aurreikuspen eta zenbatespenei buruzko adierazpenak jaso daitezke, baina ez dira etorkizuneko errendimenduaren edo emaitzen bermetzat jo behar; izan ere, arriskuak eta zalantzak egon daitezke tartean, eta horietako asko ez daude CAFen kontrolpean. Beraz, baliteke emaitza errealak zeharo ezberdinak izatea adierazitakoekin edo aurreikuspen eta zenbatespen horietan era inplizituan jasotakoekin alderatuta.

Horrenbestez, ez dira inola ere interpretatu behar CAFen akzioak erosteko, saltzeko edo horietan parte hartzeko aholku edo gomendio gisa. Era berean, helburua ez da edozein produktu edo zerbitzu finantzario eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua sinatu den egunean eman dira, eta aurretiaz ohartarazi gabe egiaztatu, amaitu eta aldatu behar dira.

Lege aplikagarriak eskatzen duen neurrian izan ezik, CAFek ez du bere gain hartzen zenbatespen eta aurreikuspen horiek jendaurrean eguneratzeko edo aztertzeko betebeharra, bai informazio berria dagoenean, bai etorkizuneko beste ekitaldi batzuetan, edota beste egoera batzuetan.

Hirugarren batek dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hartutako edozein erabaki berariaz eta bakarrik haren erantzukizuna izango da. Hala, ez CAF, ez bere filialak, ez arduradunak ez dira izango sor daitezkeen kalteen erantzule. Halaber, ez dute inolako erantzukizunik hartuko dokumentu honen edo bere edukia erabilerarekin lotuta.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira, eta ezin izango da kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (guztiz edo zati batean), baldin eta CAFek aurretiaz idatziz adostasuna ematen ez badu.